

Bonba hotsaren oihartzunak

Eguaztenetik aurrera hainbat ekitaldi izango dira Gernika-Lumon, bonbardaketaren 77. urteurrena gogoratzeko

Endika Urlezaga

Urtero bezala, apirilaren 26a egun berezia izango da Gernika-Lumorentzat. Aurten 77 urte beteko dira frankisten aginduz Condor legioak herria bonbardatu zuenetik, eta gertaera hura gogoratzeko, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte gernikarrek. Izan ere, 2014an ere bonben burrunbaren oihartzunak bertoko biztanleen oroimenean jarraitzen du, gertaera anker hura ahanzturan gera ez dadin.

Batez ere, bonbardaketaren urteurren egunak bereganatuko du bertoko biztanleen arreta. Goizean hasita, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte herriko eragileek.

Ohi legez, George Steer kazetari britainiarraren omenaldiagaz hasiko dira bonbardaketa gogo-

ratzeko ekitaldiak, Barrenkale Barrena kaleko eskulturaren ondoan. Steer bonbardaketaren berri eman zuen nazioarteko lehen kazetaria izan zen, orduko ankerkeriei aurpegia jarriz. Hala, hark egindakoa bereziki estimatzen dute gernikarrek.

Omenaldia amaitzean, Bakearen eta Berradiskidetzaren aldeko Gernika Sariak banatuko ditu udalak, Lizeo Antzokian. Aurten John Wynne hegazkin pilotu britainiarrak eta Manu Leginetxe kazetari arraztuarrak jasoko dituzte sari horiek. Erresuma Batuko pilotua, gainera, Gernika-Lumora bertaratuko da saria jasotzera. Joan den urtarrilean zendutako Leginetxeren orde, bestalde, haren familiak jasoko du aintzatespena.

Goizeko ekitaldiekin amaitzeko, 13:00etan erabakitze esku-bidearen aldeko giza katea egingo dute herritarrek, Gernika Batzordeak antolatuta.

Arratsaldean, bestalde, *Gernika 4 minutu* performance herrikoiaz hasiko dira bonbardaketa gogoratzeko ekitaldiak. Lau



Gernika Batzordeak bonbardaketan hildakoen omenez antolatutako iazko manifestazio isila. TXEBI ARRIAGA

minutuko isilunea egingo dute herritarrek, hirugarrenez.

Isilunearen ostean, berriz, bonbardaketan hildakoen aldeko elizkizuna egingo dute Zallo hilerrian. Herriko eta erakunde publikoetako ordezkariak lore eskaintza egingo diete hildakoei.

Bonbardaketa eguneko ekitaldiei iluntzean emango diete amaiera. Alde batetik, *Gernika garretan* antzerki herrikoia taularatuko dute bertoko biztanleek. Antzerki hori *Gernika sutan* lanaren moldaketa labur bat da. Izan ere, antzezlan osoa bi urterik

behin taularatzeko erabakia hartu zuen talde eragileak. Bestetik, gernikarrek kandelen manifestazio isila ere egingo dute bonbardaketan hildakoen omenez.

Bakearen jardunaldiak

Urteurreneko egitarauari amaiera emateko, Kultura eta Bakearen Nazioarteko XXIV. Jardunaldiak antolatu ditu *Gernika Gogoratzuz* elkarrekin, hilaren 28rako eta 29rako.

Parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman behar dute izena, elkarrekin harremanetan jarriz.

Aurten memoriaren gaia landuko dute bildutakoek. Izan ere, biktimen erreparazioarako lehen pausoa egindako kaltea aitortzea dela deritzote Gernika Gogoratzuzekoek. Berbaldiak entzun ostean, taldeetan batuko dira parte hartzaileak.

Jose Maria Gorroño alkateak, Jonan Fernandez Jaurilaritzako Bake eta Bizikidetzarako zuzendariak, Xabier Legarreta Aldundiko Berdintasun zuzendariak eta Maria Oianguren Gernika Gogoratzuzeko zuzendariak egingo dute jardunaldien aurkezpena.

↓ Egitaraua

■ **Maiatzaren 20ra arte, kultur etxean.** *Gernika: oihaletik zinemara* erakusketa. Jose Luis Zumetaren irudiak eta Mikel Laboren doinuak batuz, Angel Sandimasek sortutako ikus-entzunezko erakusketa.

■ **Irailaren 28ra arte, Bakearen Museoa.** *Transit Gernika* iraganeko eta gaur egungo irudiak batzen dituen argazki erakusketa.

■ **Hilaren 30era arte, Astran.** *Condor Legioak eragindako suntsipena: nazien bidegabekeria, oraina eta geroa* erakusketa. Condor legioari buruzko informazio panelen erakusketa, BASKale elkartearen eskutik.

■ **Irailaren 14a arte, Euskal Herria Museoa.** *Aranoa eta Gernalaren Gernikak. Eresoinka* kasa erakusketa. Olio pinturak, eskultura txikiak eta ikusentzunezko lan bat batzen ditu erakusketak.

■ **Udaletxean.** William Kelly artista australiarraren *Gernika Lekukotasuna* lana udaletxeko sarreran dago ikusgai.

HILAREN 23AN

■ **19:00etan, Elai-Alai aretoan.** *Alemaniatik Gernikara* berbaldia, Alemaniako historialari talde baten eskutik.

HILAREN 24AN

■ **20:30ean, Lizeo Antzokian.** Zine-Klubak antolatuta, *Rebelde* filma.

HILAREN 25EAN

■ **12:00etan, Elai-Alai aretoan.** *Memorias de guerra* liburuaren aurkezpena, Joxe Iturria egilearen azalpenekin eta Xabier Irujok aurkeztuta.

■ **20:30ean, Lizeo Antzokian.** Zine-Klubak antolatuta, *El Espíritu del 45* filma.

HILAREN 26AN

■ **11:15ean, Barrenkale Barrena kalean.** Omenaldia George Steer kazetariari. Lore eskaintza, Gernikazarraren eta udalaren eskutik.

■ **12:00etan, Lizeo Antzokian.** X. Gernika Sariak. John Wynne Erresuma Batuko pilotua eta Manu Leginetxe kazetari arraztuarra sarituko dituzte.

■ **13:00etan.** Gernika Batzordeak antolatuta, Pasealekuko babeslekutik Andra Mari kaleoraino giza katea, erabakitze esku-bidearen alde.

■ **15:45ean.** Sirena hotsa hasteagaz batera, *Gernika 4 minutu* performance herrikoia. Lau mi-

nutuko isilunea, Gernika Batzordeak eta kultura batzordeak antolatuta.

■ **16:00etan, Zallo hilerrian.** Bonbardaketan hildakoen aldeko elizkizuna eta lore eskaintza, udalak antolatuta.

■ **21:00etan, Foru Plazan.** *Gernika garretan* antzezlan. *Gernika sutan* moldaketa da.

■ **21:30ean, Foru plazatik.** Manifestazio isila kandlekin, bonbardaketan hildakoen omenez, Gernika Batzordeak antolatuta.

HILAREN 27AN

■ **20:00etan, Lizeo Antzokian.** *Lurra astinduz* antzezlan, Durangoko Karrika taldearen eskutik. 1936ko altxamenduaren osteko egunei buruzkoa. Sarrera: 8 euro (bazkideek 6 euro).

HILAREN 28AN ETA 29AN

■ **09:00etatik 14:00etara, Elai-Alai aretoan.** Kultura eta Bakearen Nazioarteko XXIV. Jardunaldien inaugurazioa. Gaia: *Unibertso memoriala eta memoria unibertsala. Hitza, hutsa eta isiltasuna.* Hitzaldiak eta elkarrizketa horizontalak: - Gema Varona Martinez doktore ikertzaile iraunkorra Kriminologiaren Euskal Institutuan

(EHU): *Biktimak osatzeko kartografiak: Memoria berrezarleri buruzko partaidetza-ekin-tzaren ikerketa proiektua.*

- Maria Oianguren Idigoras Gernika Gogoratzuz zentroko zuzendaria eta Giza Eskubideen eta Bakearen Hezkuntzako Elkarteen Foroko eta Aipaz-eko batzordeen kidea: *Memoriaren geometria, espazioa eta neurria.*

- Isabel Aspe Montoya EURO-BASK Europako Mugimenduen Euskal Kontseiluaren zuzendari teknikoa.

- Fernando Cruz Artunduaga *Territorios de Paz* Unibertsitate Programaren koordinatzailea (Tolima Unibertsitatea, Kolonbia): *Isiluneak, marmarrak eta soinuak. Heriotza eta bizitzaren arteko mintz mehea indarke-riazko gatazketan.*

- Fiachra McDonagh Europako CRIC-UE FP7 identitatea eta gatazka proiektuan ikertzailea: *Memoria, ahanztura eta bakea. Kolektiboaren dinamika eraldatzailea.*

- Patricia Barcena CEAR Euskadi Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordearen zuzendaria.

- Maria Eugenia Rodriguez Palop Madrilgo Carlos III Unibertsitateko Zuzenbidearen Filofofiako irakasle titularrak eta Bar-

tolome de las Casas Giza Eskubideen Institutuko eta Unibertsitate horretako Genero Azterketen Institutuko ikertzailea: *Loturen garrantzia. Justizia berrekitzailea eta biktimen eskubideak.*

- Galo Bilbao Alberdi Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Etika Zentroko kidea eta desagertutako plataforma bakezaleetako kidea (Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Bakeaz) eta Biktima Hezitzaileak eta Glen Cree bezalako ekimenen dinamizatzailea: *Izuzen eta memoriaren kontaketa: argibideak testamentuk gabeko oinordetzarako.*

- Jokin Alberdi Bidaguren Zientzia Politikoa doktorea, EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea, Hegoa eta Gernikatik Mundura GKEetako kidea eta Gernika Gogoratzuzeko kidea.

■ **16:00etatik 19:00etara, Astran.** *Kontarteak* labshop-a (laborategi-tailerra).

- Alex Carrascosa artista eta eraldaketa sistemikoko prozesuen ikerlaria, diseinatzailea eta dinamizatzailea.

- Andreas Schafter ProCC metodologian aditua (garapen komunitarioa) eta Gernika Gogoratzuzeko egunerokotasuna eta bakearen arloko zuzendaria.